

JESUKRISTOREN IGOERAN EDO IGANDEAN.

¿Ta uzten dezu, Artzai santua,
Bakardade ta lantuaz,
Ibar ondokai taillun onetan
Zure jendea emen beraz,
Ta zu, autsirik aize garbia,
Betiko bizira zoaz?

Len doatsuak, eta orain triste
Ta atsekabeak diranak.
Azitakoak zure laguntzaz,
Zure mendetik kenduak,
¿Nora itzuliko dituzte bada
Orain beren sentierak?

Zure arpegiren edertasuna
Ikusi zuten begiak,
¿Zeri diote begiratuko
Bekaitzen baditu danak?
¿Zer izango ez du gor ta doakabe
Itzertia adi zizunak?

¿Zeñek parako dio orain brida
Ichas genasi oneri?
Górdea zaudela, ¿nork araudéa
Aize gogor iratuari?
¿Nórk erakusko dio bidea
Idorrera ontziari?

¡Ai! odeia naia! poz labur ontaz
Ere, ¿zér zera kejatzen?
¿Zeñen ederki urruntzen zeran!
¿Norá ariñ dezu egaatzen?
¿Zeiñ bearrean ta zeñen itsu
¡Ai! gaituzun lajatutzen!

CLAUDIO DE OTAEGUI.